


Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %2,0 murriztu zen 2014ko laugarren hiruhilekoan

Obra Zibila %7,5 gehitu da 2014 osoan, bost urtez tasa negatiboak izan ondoren

Eustaten datuen arabera, 2014ko laugarren hiruhilekoan, lan egutegi homogeneousan eta urte artean %2,0 nominala murriztu zen Euskal AEko eraikuntza jarduerak.

Urtaroen eragina zuzendu eta gero, 2014ko laugarren hiruhilekoan eraikuntza sektorea %0,1 murriztu zen, hirugarrenaren aldean.

Euskal AEko eraikuntzaren koiunturari buruzko indizearen urte-arte aldakuntza-tasa. (%)
Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Eraikuntza sektorearen jaitsiera Etxegintza azpisektoreari zor izan zitzaion, urte arteko %4,3ko jaitsiera izan baitzuen; Obra zibilean, %11,6ko gehikuntza.

Hiruhilekoen artean, 2014ko laugarren hiruhileko sektoreko jarduera aurrekoarekin alderatuz gero, Etxegintzak bilakaera negatiboa du, %0,8; Obra Zibilak %3,3ko gehikuntza.

Eraikuntzako enplegua %0,7 gehitu zen 2014ko laugarren hiruhilekoan hirugarrenaren aldean.

1. taula: Eraikuntzaren koikuturaren indizea. Euskal AE. 2014/IV. Aldakuntza tasak (%)

	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	14 4.hir/13 4.hir	At/At-1 (1)	14 4.hir/14 3.hir	14 3.hir/14 2.hir
Produkzioaren indizea	-2,0	-3,5	-0,1	-2,7
Eraikuntza	-4,3	-5,3	-0,8	-3,8
Obra zibila	11,6	7,5	3,3	3,2
Landunen indizeak	-	-	0,7	-0,8

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal AEko Eraikuntzaren koikuturaren indizea (EKI)

Urteko balantzea

2014 osoan, Eraikuntzaren koikuturaren indizea %3,5 murriztu da aurreko urtearen aldean, baina bi azpisektoreek oso bestela jokatu zuten. Etxegintza %5,3 murriztu zen, tasa negatiboak zazpi urtez; Obra Zibilean %7,5eko igoera 2013aren aldean, bost urtez beherakadak izan ondoren.

2. taula: Eraikuntzaren koikuturaren indizea. Euskal AE. 2014. Aldakuntza tasak (%). Behin-behineko datuak

	2014/2013
Produkzioaren indizea	-3,5
Eraikuntza	-5,3
Obra zibila	7,5

Iturria: Eustat. Euskal AEko Eraikuntzaren koikuturaren indizea (EKI)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Eraikuntzaren koikuturaren indizea (EKI); prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzaren koikuturaren indizea (EKI); datu-bankua